

## Hernaniko Ehiza Txapelketa Epeleerreka eta Uxokoerrekan

■ Gaur, goizeko 10:00etan hasi eta bi igandetara jokatzeko da ■ Txantxangorri elkar-  
teak antolatzen du ■ 25 ehiztari aterako dira, eper, faisana eta oilagorretara.



Arkaitz Santakruz Txuri txakurrarekin, ia irabazitako txapela buruan duela. 10 pieza bota zituen.

TIROA bota airera eta han aterako dira 25 ehiztariak. Bakoitzak eskopeta eta txakurra izango ditu ehizerako; ondoan, berriz, epailea.

**105, 102 ETA 100 PUNTU**  
Pizti bakoitzak bere puntuazioa du: oilagorrek 105 puntu; eperak 102; eta faisanak 100. Txapela, gaurko eta datorren igandeko saioan puntu gehiena ateratzen dituenak jantziko du. Eperak eta faisanak antolatzaileek askatzen dituzte eta oilagorrek, berriz, Epeleerrekan eta Uxokoerrekan bertan daude. Oraindik, ez dago granjan hazi eta askatzeko modurik.

**"ETSI EZ BUKATU ARTE"**  
Iaz, Arkaitz Santakruz *ina-*

*tzurrak* irabazi zuen eta bere ustez sekretua da "ibili eta bukatu arte ez etsitzea". Lehen ehiza sail osoan banatuta askatzen zuten. Orain, ordea, patroletan joan eta bide bazterrean uzten dituzte: "Pista ondota ibili behar da, pista ondota!" iazko txapeldunak.

Hala ere, txakurra eta suertea biak behar omen dira onak, irabazteko "Eta apunteria, bestela alperrik da!"

**ZONAKO TXAPELKETA**  
Hernaniko Txapelketa irabazten duenak hemen inguruko sei herrien artekoa jokatuko du. Gregorio eta Arkaitz aita-semeak bigarren eta hirugarren bai, baina, ez da oraindik txapelik Hernanira etorri.

### EHIZA TXAPELKETA

□ **Saria:** Txapela eta 20.000 Pta. Gero, zozketaz, koto-rako txartela.

□ Botatako ehizarekin, urtarrilean sari-banaketa bazkaria egiten dute.

□ Gregorio Santakruzek irabazi du aldi gehienetan: 4 aldiz, denera.

□ Egun bakarrean pieza gehieneko marka ere Gregoriok berak du: 11 pieza.

□ Behin 16 oilagor bota zituzten. Gaur ez omen dute bat baino gehiago botako.

### HERNANIKO EHIZA

Basurdea da orain inguru hauetako ehizarik ugariena. Muxarra elkartekoek 20 bota dituzte aurten. Usoa ere aspaldiko gehiena bota omen da. Oilagorra, honera etor-tzerako, kostaldean *zeletan* bota omen dute asko (egunsentian eta iluntzean. Debe-katua dago); "Orain, txakurrarekin ibiltzen gerantzat batez!" haserre Arkaitzek.

Ehiztari asko, ordea, koto-etara joaten da kanpora: Sorriara, Burgosera, Huescara... hemen geroz eta ehiza gutxiago baitago. "Gutxi barru ehiza dirua daukanak egingo du, besteek ezerez" esan digu erdi etsita Hernaniko ehiztari txapeldun gazteak. □

## 49ko kintoek meza eta bazkaria Urnietan, gaur

■ 12:45etan meza Salesianoetako kapilan ■ Ordubietan, bazkaria Oianume jatetxean ■ 110 apuntatu dira.

### ■ WATERPOLOA

## Hernani - Barakaldo

■ Hernaniarrak aurrena dijoaz Euskadiko 2garren Ligan ■ Gaur, kiroldegian 13:00etan .

HERNANIKO taldeak jokatutako lau partiduak irabazi ditu Ligan. Barakaldo, berriz, bederatzi ekipoetatik laugarrena da. Gaur irabaziz gero, pauso garrantzitsua emango lukete Hernaniko mutilek hurrengo denboraldian Euskadiko 1. Ligan jokatu ahal izateko. Aurreko asteburuan atsedendia hartu izanak ez al zituen motelduko! □

### ■ 3garren MAILAKO FUTBOL LIGA

## Hernaniarrak Zubipen sestaoarren kontra

■ Arratsaldeko 16:30etan hasiko da partidua.



Zarautzen kontrako bigarren gola ospatzen, pozik, atzo Zubipen.

ASTEAZKENEAN Bermeon 0-1 irabazi zuen Hernaniko taldeak, eta saiatuko da bere hemeretzi puntuei beste hiru eransten, gaur. Sestaoarrak txuriberdeen atzetik dijoaz, sailkapeneko azken postuetan; gaur irabaziz gero zulo

dezentea irekiko lukete hernaniarrek.

### NESKEK 7-0 IRABAZI

Zarauzko taldea erraz hartu zuten mendean, atzo. Golak: Maddi (1), Nagore (2), Itxaso (1), Olaia (1) eta Joana (2). □

MARI FA  
ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkolaga 17  
943 55 04 89 943 55 27 41  
HERNANI

**GasHernani**  
Zure etxerako energia naturala  
GAS NATURALA

Gudarien Enparantza z/g, Tfnoa.: 943 33 09 28  
20120 HERNANI

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.

OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.\* (11.990,19 euro\*)  
\*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

**MENABI**  
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43



‘FRAY’REN ARGAZKI ERAKUSKETA (TXEMA TABERNAN)

## Gaur, azken eguna

- Jendeak era askotako komentarioak egin dizkio: oso ondo, musika serioegia...
- Urtarril edo otsail alderako beste erakusketa bat egingo du.



Alberto Elosegui 'Fray', bere erakusketa ikusteko kaskoak jantzita

‘BURRUKAREN jolasa, jokoaren burruka’ Alberto Elosegiren argazki erakusketa orain dela 6 urteko lanaren ondorena da. Orduan, argazkiak eta musika uztartuta egin zuen emanaldi bat. Gaia: “txikititan burruka jolasean egiten da, haunditan, berriz, burruka joko bihurtzen da, lehia”. Aldi hartan, ordea, baliabide tekni-

koak huts egin, eta Fray ez zen gustora gelditu. Orain 200 argazkiko emanaldi haren muestra eduki du jarrita, 60 argazkikoa.

**ENTZUNEZ IKUSTEKO**  
Erakusketa kaskoak jantzi eta gaiari lotutako musika entzunez ikusteko egina dago. Batzuek, “oso konbinazio

ona” egin duela esan diote; besteek, “serioegia” dela, ez duela “pegatzen”...

Albertok badu beste idea bat buruan. Bere maisu zenaren omenez egingo du beste argazki erakusketa. Urte hasierarako agindu digu.

Bitartean, Frayk eskerrak eman dizkie argazkietan ateratako Langileko umei. □

KARABELEN TUTE ETA MUS TXAPELKETA

## Ricardo eta Manolo txapeldun tutean, atzo

- Mus Txapelketa gaur jokatuko da ■ Sari banaketa, txapelketa ondoren.

HAMAR bikotek jokatu zuten, atzo, hamazazpigarren Karabelgo Tute Txapelketa. Auzo elkarte baskideek hartu dezakete parte. Urtero 10-12 bikote inguru izaten omen dira.

### DIFERENTZIA GUTXI

Final gogorra irabazi zioten Carrasco eta Filloyri. Kontsolazioko partidari: hirugarren Raimundo eta Gaspar Pavon; eta laugarren Mozas aita semeak.

Gaur, berriz, museko txapelketa jokatuko da arratsaldeko 15:30etan, auzo elkarte lokallean bertan. Ondoren, tute eta museko sari banaketa izango da. □



Honuzkaldean 3-4 postua eta atzean finala jokatzen, atzo.

**UGALDE, S.A.**  
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16  
Tel. 943.551.598  
Faxa 943.552.067  
20120 HERNANI

**Zinel**

**ARALAR**  
TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

## HITZ BITAN



Azken ukituak falta zaizkion plazan izango da txistorrada.

### ✓ SORGINTXULO AUZOA

**Txistorrada datorren larunbatean.** Urtero bezala, Santo Tomasak ospatuko dituzte, baina, astebete aurreratuta. Sorgintxuloko plazan, arratsaldeko 19:00etan.

### ✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

**Jaione Tejedor 13garren, Espainiako txapelketan.** Helburu nagusia finalera pasatzea zuten, baina, ez zuten lortu, aurrerako zortzi talde bakarrik ziren-eta. Estatuko 36 taldeetatik 13. gelditu dira; Euskal Herrikoetan lehenengo.

### ✓ LIZEAGAKO AUZO ELKARTEA

**Zuzendaritza eta lehendakari berria aukeratzeko bilera.** Datorren larunbatean Lizeagako auzo elkarteak bilera du zuzendaritza eta lehendakari berria aukeratzeko. Bilera eguerdiko 12:00etan izango da Lizeagako auzo elkarte lokallean. □

## AGENDA

### ❖ ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak.  
Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa  
Zumardi jatetxean.

### ❖ ZINEA

Helduentzako: *Road trip*

Biterin, 19:30

Umeentzako: *Los Picapiedra en viva Rock Vegas*

Biterin 17:00etan.

### ❖ MUSIKA

Trakets taldea

Oialumen, 20:00etan.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes Etxeberri, ☎ 943 557738  
▶ Gaeuz: Gil Lasarte. Nagusia, 24 ☎ 943 361529

## IRAGARKI MERKEAK

- Furgoneta bat daukat saltzeko: Zazpi eserlekuko Mercedes Vito bat; hiru urte eta erdi ditu.

☎ 943-332937



**SANTA BARBARA**

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

## AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

- ▶ Peugeot 405 *Diesela nahiz Gasolina*
- ▶ Peugeot 205 *Diesela*
- ▶ Citroen C-15 *Diesel* batzuk 380.000 pztatik
- ▶ Ford Courier *Diesela-Lagundutako direkzioa*
- ▶ Opel Astra 'Caravan' *Diesela* 675.000 pzta
- ▶ Opel Astra *Diesela* 875.000 pzta
- ▶ Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...